



Conseil de Développement du Pays Basque
Euskal Herriko Garapen Kontseilua



GIZARTE ZIBILAREN FOROA

Zein lurralde proiektu Euskal Elkargoarekin?

Lantegiaren sintesia

Bestelako bizileku eta mugikortasunak



Bestelako bizileku eta mugikortasunak

Alain FRANCK eta Imed ROBBANAK animaturik

AGERIAN DENA ETA JOKOAN DENA

Egun, Euskal Herria pasa daiteke guztiz kostaldera bilduriko hirigintza batetik hirigintza orekatuago batera: bizitegiak eta jardunak barnealdean garatzeak mugikortasun arazoak konpontzen lagun dezake. Bizilekua eta mugikortasuna elkarri loturik dira eta elkarrekin landu behar dira, lanpostuen gaia ere kontuan hartuz: **hiru arazoei aldi berean erantzun behar zaie, hiria egituratzeko manera birpentsatuz.**

Jokoan dena ez da bergauza lurralde orotan:

- Kostaldean biltzen dira lanpostuak eta hori dute mugikortasun handiena; bizitegia ororen esku jarri beharko litzateke, bereziki bizitegi lagunduak eginez;
- Barnealdean bizitegia eskuragarriago da, baina baliagarriago behar du izan: hurbilean lanpostuak sortu eta mugikortasun aukerak areagotu.

Bestalde, egungo antolamendua **zenbait gizatalderen kalterako da**: gazteen, zaharren, bai eta sasoiari ere kalterako da. Aterabide bereziak asma daitezke biztanle horientzat bereziki.

NOLAKO ARRAPOSTUA EMAN?

Non bizi eta nola mugitu hautatu ahal izatea jasan behar izan ordez. Horretarako, hirigintza integratua egin behar da, aldi berean landuko dituen bizilekua, ekonomia, mugikortasuna, zerbitzuak, elikatzeko autonomia, ingurumena... Behar horiek guztiak «**ekosisteman**» pentsatu behar dira, maila desberdinetako proiektuen bidez, herri eta hiri barneetan.

Bestalde, ez da guztia kolektibitateen gainean utzi behar: **partaide** behar dute izan eta eraginkorrago egin jadanik **badauden herritar ekimenak** (parte hartze bidezko bizilekua, elkarbidaiak, zerbitzuak elkarrekin dituzten zaharren egoitzak...), eta luzera begirako zeregin estrategikoari ekin (trenbidezko lekualdaketak, talde garraio sarea eta interfaze multimodalak, hirigintza dokumentuak...).

URRATZEKO BIDEAK...

- Sasoiarientzako eta zaharrentzako **baliabide egokiak** garatu, bai eta **bizitegi lagunduak** garatu lurraldeetan
- **Herritarren ekimenak** lagundu: autopartekatzea, elkarbidaiak, bizileku partekatua,...
- **Bizikletaren aldeko egiazko politika** gauzatu eta hiri leku lasaiak antolatu